

Palankariak:

jaurtiketak

belaunaldiz belaunaldi

■ Jon Odriozola

Argazkiak: Nosotros LOS VASCOS
(Juegos y Deportes IV).



Iragan mende erdira arte oihartzun eta sona handia izan zuen. Orain, nahiz eta oso gurea izan, kirol ia arrotza da. Euskal palankariak hamaika marka lortu zituzten hemen zein mugaz gain. Duela mende erdi, palanka jaurtitzeko erak xabalinaren zimenduak datzan jarri zituen. Sortu zuen zeresanik. Baina urrutira joan gabe, badugu bere berri Hernanin, urteak baitira San Joan jaietan palankari txapelketa egiten dela.

Ez da batere erraza palankaren jatorria jakitea. Antza, XV. mendean kirola honen antzeko zerbait ba omen zegoen. Geroago, Tomas Zumalakarregi (Ormaiztegi, 1788-1835) alferrez karlista zela -jeneral izatera heldu zen- taktika militarren baitan, arerioa ezustean harrapatzeko "geziak" jaurtikitzen omen zituzten haren aginduetara zeudenek. Oso ohikoa zen, antza, artzainek ere gezi horien antzekoak erabiltzea. Karlistenak pisutsuak ziren, hamabi libra (libra bat, 450 gramo) baino gehiagokoak, eta harginen lastabinen antzekoak. Zumalakarregiren taldean ba omen ziren dozena inguru lagun, oso iaioak "gezi pisutsuak" jaurtikitzen.

Gudaroste karlistan ardura handiagoak hartzen joan zenean, ormaiztegiarrak, idatziriko gutun batean *Mendia* abizeneko hernaniar bat aipatzen du. Gerra ekintza batengatik domina eman ostean zera idatzi zuen karlistak: "palanka jaurtitzen duen bezala biraka jirarazten du sablea". Zumalakarregik intendentziara bidali zuen gutun batean, "beti eraman beharko genituzke gainean, troparen entrenamenduetarako, zenbait joko eta ariketetarako tresnak", idatzi zuen: "esaterako pilota eta eskularru aproposak, eta batez ere jaurtiketak egiteko palankak".

Labaka baserria.

Antxon Aguirre Sorondo (Donostia, 1946) etnografoaren iritziz, XVIII. mende amaiera aldera, jada, palanka norgehiagokak egiten ziren. Orduko palanken pisua 6,75 kg zen. Bularrez edo oin zuzenekin, batz bestea, 18 metro jaurtitzea lortzen zuten; bueltaka, 20 metro gutxi gorabehera, eta 15 metro zankopeka.

XVIII eta XIX. mendean zehar *Juan Bautista Mendizabal* zaldibitarra palankari ospetsua izan zen. Besteak beste, parte hartu zuen bost apustu handitan, nagusitasun osoz mendean hartu zituen arerioak. 1793an, bere herriko Tertzio kapitain gisa Irunen zela, hordagoa bota zion edonori. Baina inor ez zen aurre egitera ausartu. Zelaietan palanka hiru era ezberdinetan jaurtikitzeko gai zen: bular edo oin zuzenekin, buelta erdika edo hankapetik (zankope).

XIX. mende bukaerako palankari famatuenak, Bidaniko (Gipuzkoa) Labaka baserriko *Juan Bautista Elola* (Bidania, 1848) eta *Juan Martin Elola* (Bidania, 1842) izan ziren. Anaia gazteenak, Juan Bautista, zaharrenaren marka handiak txikitu egin zituen. Ameriketara joan aurretik, 19 urte zituela, 1867an, Albisturren egindako txapelketa batean 39,06 metro inguruko jaurtiketa erdietsi zuen. Uruguain ere, hara joandako euskaldunen artean, hamaika apustu eta desafiotan parte hartu zuen palankariak. Entzutetsua egin zen Juan Bautista Elola, eta Pedro Mari Otaño bertsolariak (Zizurkil, 1857-1910) zenbait bertso egin zituen bere omenez:

*Bidaniako Labakan jaioa
erantz ontan dagoena
Elola deitzen da izengañez
Juan Bautista du izena.
Nik orindañi ikusi dedan
gizonik egokiena,
seme leiala, altu, prestua,
euskaldun on da zuzena,
mundu guztian gaurdaño izan dan
palankaririk onena.*





Berazubi estadioan, Tolosan, 1935eko uztailan. José Luis Zelaia, Juan Antonio Iguaran (gero munduko txapelduna izango zena) eta Felix Erauskin.



Baltasar Esnaola palankaria Tolosako Berazubi estadioan (1942-08-29). Irudia: ARANZADI Zientzia Elkarte, Jesús Elozegi funtsa: (JEI 00280-20).

XIX. mendeko azken hamarkadako palankari ospetsuenetarikoa *Aginagako Sakristaua* izan zen. 30 urtetan zehar parte hartu zuen ekitaldietan, ezaguna egin zen oso bere jaurtiketen erregulartasunagatik: ia beti, palanka 40 metrotara jaurtitzen zuen.

Ondoren, Gipuzkoan, *Gabino Lizarza* (Berastegi, 1888) eta *Baltasar Esnaolaren* (Gaztelu, 1887) aroa heldu zen. Biek, palanka jaurtitzaileen ordu-ara arteko ohiko itxura hautsi zuten. Nahiz eta garaiak eta indartsuak izan, arinak ziren oso: 80 eta 85 kiloren bueltan pisatzen zuten. Zerikusirik ez Elola eta *Aginagako Sakristaua*-rekin; ehundik gorako mutil puskak baitziren.

Mugaz gain.

Euskal Herrian ez ezik Espainiako herrialde ezberdinetan palanka jaurtitzeko era ezberdinak egon izan dira. Palankaren sonagatik, nahiz eta tirabira dezenteren ostean izan, palankak 1930eko Espainiako atletismo txapelketetan parte hartzeko eskubide osoa lortu zuen. Helburu handiago bat ere erdiestea bururatu zitzaion inori: Nazioarteko Olinpiar Batzordeari (NOB) "sustrai hispaniarreko atletismo proba bat erakustea eta egitarau olinpikoan sartzea proposatzea".

1932ko txapelketaren antolakuntza Gipuzkoako Federazioak hartu zuen bere gain eta garai-pena etxean geratu zen. Lehen hiru sailkatuak gipuzkoarrak izan ziren. *Domintxin*, lehen sailkatuak, 32,62 metrotara jaurti zuen palanka. 1933an, berriz, *Felix Erauskin* handiak erdietsi zuen txapela, 35,66 metro jaurtiz. Felix, gaztetan, Zeanurín, artzainen makilak -urez bustita-jaurtitzen ibilia zen. 1935ean, berriz, Espainiako Federazioak palanka egitarautik atera egin zuen, nahiz eta 1944an, berriz onartu. NOBk (Nazioarteko Olinpiar Batzordea) 1936ko Berlineko Olinpiar jokoetan, palankaren erakustaldi bat egitea onetsi bazuen ere, ezin izan zen gauzatu Gerra Zibila zela-eta.

Nahiz eta nahiko edadetua egon Baltasar Esnaolak hamaika palanka erakustalditan parte hartu zuen Gerra Zibilaren ostean. 1942an, 55 urte zituela, leporaino bete zen Tolosako Berazubi Estadioa palankariaren lana ikusteko. Esnaolak izan zuen oinordekorik. Adibidez, Tolosako Iguaran sendiko palankari gazteenak, *Juan Antonio*-k,

marka handiak lortu zituen. Besteak beste, 51,55 metro erdietsi zituen 1957an.

Palankako egungo errekorra Manuel Claveroren esku dago. Kataluniarrak 1960an, 56,39 metro lortu zituen, nahiz eta iturri batzuen arabera, 1962. urtean, 57,05 metro lortu ei zituen.

Melbourneko (1956) Olinpiar Jokoen atarian ez zen zalapartarik falta izan palankaren kontura: "euskal jabalinaren afera" piztu zen. *Miguel de la Quadra Salcedo* atleta nafarra, ondoren kazetari ezaguna izan zena, disko-jaurtitzaila zen. Espainiako atletismo taldeko kide izateaz gain, nazioarteko zenbait lehiaketetara gonbidatzen zuten.

Miguel de la Quadra Felix Erauskin beterranoa palanka jaurtitzen ikusteko aukera izan zuen behin Tolosan. Nafarra harrituta geratu zen palankaren teknikarekin. 1956an, Parisen egin zen nazioarteko dema batean, nafarrak guzti-guztiak harrituta utzi ei zituen xabalina jaurtiketan parte hartu nahi zuela esanaz. Antolatzaileek ez zioten trabarik jarri. Miguel de la Quadra ezezagunak guztiak aho zabalik utzi zituen jaurtiketa berri eta iraultzaile bati esker. Xabalina 66 metroz haratago bidali zuen. Handik egun batzuk beranduago, Felix Erauskin, berrogeita hamar urtetik gorako kirolariak, munduko errekorra hautsi zuen: "euskal erara", xabalina 83 metro baino urrunago jaurtiz. Nazioarteko Atletismo Federazioa (IAAF) di-da batean bildu eta araudia aldatzea erabaki zuen "estilo espainiar berria" galaraziz. Horrez gain, atzeraeraginezko izaeraz, era honekin lorturiko markak ontzat ez ematea deliberratu zuen.

Errekorrak.

Handik urte batzuetara, 1982an, Felix Erauskin, 74 urte zituela, Melbourneko Olinpiar Jokoen atarian gertatu zena azaldu zuen: "Xabalina, 105 metrotara jaurti nuen palankarien teknika erabiliaz; orduan munduko errekorra 85 metrotan zegoen". IAAFek harturiko erabakiak ez zirela batere zuzenak izan azpimarratu zuen zeaurriarrak: "Orduan, Olinpiar Joko bat egin baino 14 hilabete lehenago ezin zitekeen araudia aldatu. Eta askoz denbora gutxiago falta zen Melbournekoentzat. Ez hori bakarrik, arautegia bi aldiz aldatu zuten. Lehendabizi bueltak ematea

galaraziz. Baina hala eta guztiz ere, xabalina, besoa atzera botata ere, birarik eman gabe, urrutira jaurtiki zitekeen. Hori ere galarazi egin zuten, geziaren punta beti aurrerantz egotera behartuz".

Hartutako erabakiaren inguruan Erauskin ez zuen zalantzarik: "Gauza da, ez ginela ez amerikarrak, ez alemaniarrek, ezta frantziarrak ere, giza 'ezdeus' batzuk baizik". Halere lorturiko jaurtiketarengatik pozik zegoen oso: "Ezertarako balio ez badu ere, barrena lasai daukat, uste baitut munduko errekorra lortu nuela. Amerikarrek edota beste edozein herriko jaurtitzaila batek gure teknika erabili izan balu, segituan hartuko gintuzten mende. Hau da, euskaldunok oso denbora gutxian izango ginen errekorren jabeak. Baina ez zuten ezta hori ere onartu".

Oraina.

Josean Zubillaga-k (Donostia, 1936) urteak daramatza palankarien lehiaketetako berriak (datuak...) biltzen. Horrez gain, palankari eta epaile lanetan ere aritu izan da. Zubillagak, atletismoaren eskutik ezagutu zuen palanka. Bere iritziz, palankaren jatorrietariko bat *El Escorial*-en euskal harginek harria zulatzeko erabiltzen zituzten laztabinetan egon daiteke.

Donostiarraren ustez palanka jaurtitzea ez da ahuntzaren gau erdiko eztula: "Norabidea zuzena lortzea ez da batere erraza. Arriskutsua da. Juan Antonio Iguaranek, adibidez, palanka jaurti aurretik, palanka uretan busti eta hondarrez igurtzitzen zuen".

Palanka lozorroan sartu zenean, Zubillaga, Atletiko San Sebastian taldean palanka indartzen ahalegindu zen. "Donostiako Kontxa hondartzan, 1984an, palankari txapelketa bat antolatu nuen. Halere, Hernaniko Etxeberri elkartekoek ez bezala ez nuen jarraipenik izatea lortu. Hernaniko San Joan jaietan ospatzen den txapelketari esker eusten dio palankak Gipuzkoan goiari".

Donostian ez ezik, Zubillagak, Burlatan (Nafarroan) ere antolatu zuen 1985ean (irailaren 29an) txapelketa bat. "Bertan, Jose Luis Hernandez nafarrak, 53,32 metro lortu zituen. Orain arteko bigarren markarik onena. Eta Joxeba Laburu herriarrek ere lan txukuna egin zuen. Gaurdaino

lortu duen jaurtiketarik hoberena erdietsiz: 44,38 metro. Hau da, palankaren historiako hamahirugarren jaurtiketarik bikainena”.

Palankariak orain urte gutxira arte gizonezkoak ziren soilik, egun, emakumeak ere aritzen dira. Zubillagak duen lehen aipamena 1984ko irailaren 8koa da. *Virginia Alarcia*-k 17,50 metro jaurti zituen Donostian. Palankari emakumeen ranking historikoa hamabost emakumek osatzen dute, eta lehen lau postuetan *Olaizola* sendiko hiru emakume ageri dira: *Karmele*, *Izaskun* eta *Eduarne*. Markarik onena, duela 21 urte *Karmele Olaizola*-k (Atletiko San Sebastian) lortu zuen: 36,96 metro. “*Karmelek egin zuen marka txapela kentzekoa da*”, azpimarratu du Zubillagak. Donostiarrari palankak asko eman omen dio: “*Hil ezin daitekeen gure kirol bat da palanka, nahiz eta jakitun izan benetan zaila dela bere biziraupena*”.



Zubietan (Gipuzkoa, 1984) eginiko palanka lehiaketa. Ezkerretik eskuinera: Bonifacio Allende 'Boni' (markarik onena, 48,53 m), Jose Luis Hernandez 'Haurra' (egungo Euskal Herriko errekoraren jabea: 53,32), Esnaola, Joxeba Laburu (44,38 m.), Juan Antonio Iguaran (52,61 m.), Jose Mari Goiburu (39,64 m.), Kote Olaizola (30,56 m.), Jose Luis Olaizola (35,37 m.), Pascual Ugartemendia (palanka epaile hernaniarra), Josean Zubillaga (epailea), Manolo Fernandez (epailea) eta Bizente Huizi (epailea).



Joxeba Laburu

Palankaria

Zeharka izan zuen kirolaren berri. Ezustean. Jaurtitzen hasi orduko haren atzaparretan erori zen. Elkar ezagutu zutenetik, hogeita hamar urte joan dira, eta elkarrekin jarraitzen dute. Asko eman diote elkarri. Kirolaren oiha-nean, palankak biziraun nahi du eta horretarako Joxebaren beharra du. Inor gutxi gogoratzten baita bera bezala palankaz.



Joseba Laburu palanka jaurtitzen Landaren, 1984ko Sanjoanetan egin zen lehiaketan (1984-06-23).

Nola gogoratzen dituzu palankari gisa eman zenituen lehen urratsak?

Atletismoan urte batzuk eman ondoren, Etxeberri Elkarteko zenbait partaidek palanka berriz bultzatzeko asmoa hartu zutenean ekin nion nik ere. Haien artean bazen bat, biziki bultzatu zuena; palankako epaile lanetan ibili zen Pascual Ugarte-mendia.

Atletismoan, xabalina jaurtiketan aritu zinen.

Bai, baina batik bat diskoa. Biak tartekatuz 15-16 urte nituela ekin nion. 18 urterekin kilo eta erdiko diskotik bi kilokora pasatzea astuna egin zitzaidan. Apurka biak, uzten joan nintzen. Palankari beranduago heldu nion: 25 urterekin. Astigarragatik Hernanira bizitzera etorria nintzen 1982an, eta irakaskuntzan niharduen. Kirol apur bat egin behar nuela eta, hasi nintzen palankak jaurtitzen. Guztiz berria izan zen; niretzat eta jende askorentzat. Garai hartan, laurogeiko hamarkadan, palanka, inor gutxi ezagutzen baitzuen.

Eta nor izan zenuen irakasle?

Dozena bat urte nituela Usurbilgo eskolan izan nuen soinketako irakaslea, palankaria izana zen: Manolo Clavero. Bere kirol ibilbidearen berri handik urteetara jakin nuen. Egun, oraindik bizi da. Ikastetxe hura itxi eta beste eskola batera joan nintzenean soinketako irakasle batekin diskoa jaurtitikizten ikasi nuen. Ondoren Donostiako Peñaflorida institutuan, kasualitatez, Usurbilen izandako irakasle berberarekin egin nuen topo: Claverorekin.

Urte batzuk geroago, Etxeberri Elkartean egoten ziren palankak hartu, Landarera joan, eta jaurtitikizten hasi nintzen teknika menderatu arte. Errieta batzuk ere entzun behar izan nituen Landareko arduradun baten ahotik: palankarekin zelaia zulatu eta hondatu egin nuela leporatuz. A zer amorrua nirea!

Beraz, jaurtiz ikasi zenuen.

Bai, pixkanaka. Palankan aritu garen gehienok autodidakta samarrak izan gara. Beraz, nik botatzeko tankera eta beste batzuk dutena, ezberdina da.

"Palankan aritu garen gehienok autodidakta samarrak izan gara".

Botatzeko eran ere, herrialdeka, aldea al dago?

Herrialdeka baino gehiago norberaren teknikaren arabera.

Lehiaketetan asko biltzen al zineten?

Ez, gutxi. Palankari gehienak atletismoan ibiliak ginen; palankan denbora pasa aritzen ginen. Gipuzkoan, momenturik onenean, zortzi lagun inguru aritzen ginen deman. Bizkaitar bat edo bi ere etortzen ziren. Gauza da, garai batean, ni hasi baino urte dezente lehenago, etenaldi handi samarra bizi izan zuela kirolak; ez zen ia inon urtetan palankarik egin. Eta palankari asko bere sasoirik onenean ez aurrera eta ez atzera geratu ziren.

Xabalinak palankak jan zuen?

Xabalinak baino gehiago, diskoak. Gaur egun palanka jaurtitikizten duten gehienak ere disko jaurtitzaileak dira.

Disko eta palanka jaurtiketa bueltak emanez egiten delako?

Bai. Horrek nolabaiteko antza ematen die bi kirolei. Halere, ez askorik egia esan. Eta noski, palanka luze batek, ez du zerikusirik disko batekin.



Palanka batek zenbat pisatzen du? Zein berezitasun ditu?

Hiru kilo eta erdiko pisua du. Emakumeek jaurtikitzen dituztenak, berriz, bi kilo eta erdikoak dira. Hernaniko Etxeberri elkartekoek egin zituzten, orain hogeita hamar bat urte arte ez baitzegoen emakume palankaririk, baldin eta gu hasi baino askoz lehenago ez bazegoen. Egungo emakume palankari gehienak donostiarrak dira eta diskotik datoz. Olaizolatarrak dira onenak. Aita ere, disko jaurtitzaila izan zen.

Nola jaurtikitzen da palanka?

Palankaren alde zabalena gorantz jartzen da eta erdia baino pixka bat goraxeagotik heltzen da; alde lodienarentz. Palanka batek, metro bat eta berrogeita hamar zentimetro inguruko neurria du. Handik aurrera, ordea, loditu egiten da. Jaurtiketa egin aurretik, jaurtitzailak nahi dituen bira guztiak eman ditzake palanka eskuan duela. Behin amaiera marrara iritsi orduko jaurti egin behar da. Palankak alde lodienarekin lur hartu behar du ontzat emateko. Alderantziz bada, jaurtiketa baliogabea da. Kirol arriskutsua da palanka; asko entrenatu behar da. Ez da txantxa; ondo menderatu behar da jaurtiketa eremutik irten ez dadin.

'Zankope' edo hankapeko teknika erabiliz bota al duzu inoiz palanka?

Hankazpiko era ez dut inoiz ikusi eta probatu izan dudan arren ez dut jaurtikitzen asmatu.

Eta txapelketa asko antolatzen al ziren garai batean?

Laurogeiko hamarkadaren hasiera, 1980, 1982, 1984... urteak, bero samarra izan zen palanka txapelketei dagokionean. Hernanin, Donostian (Kontrako hondartzan), Zubietan (Gipuzkoa), Berastegin, Leaburun...

Garai hartan garaieraz txikia zen Jose Luis Hernandez 'Haurra', palankari nafarra, ibili zen ondoen; 53 metro pasatxo lortu zituen behin. Bestalde, berastegiarra da inoiz ezagutu den palanka jaurtikitzailerik onenetarikoa, Gabino Lizarza. Hau gerra garai inguruan aritu zen. Behin, Berastegitik gonbidapena luzatu zidaten, bazirela gazte batzuk palanka jaurtiketa ikasteko prest zeudenak, baina kotxerik erabili ezin nuen boladan izan zenez, ezin izan nintzen irakastera joan.

Txapelketetan zenbat palanka jaurtiketa egiten dira.

Oro har, seina jaurtiketa egiten genituen garai batean. Txapelketa batean dozena erdi lagunetik gora biltzea, jendetza zen. Gaur egun, beste hainbeste biltzen gara; Hernanin batik bat.

Inoiz pentsatu al duzu palankak gorantz egin-go duela?

Ez. Atletismoan, pisu, mailu eta xabalina jaurtitzailak ere ez dira inoiz asko izan Gipuzkoan.

Zein izan da zure palankari kuttunena?

Palankari dezente ezagutu ditut; niretzat jaurtitzaila dotoreena, adibidez, arabarra zen, Florencio Lopez de Armentia. Tolosako Juan Antonio Iguaran ere palankari ospetsua izan zen.

Eta Felix Erauskin?

Ezagutu nuen. Behin, laurogeiko hamarkada hasieran Hernaniko txapelketara ekarri eta oho-rezko sakea egin zuen. Ordurako 74 urtetik gora izango zituen.